

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Jaunaren Agerkundera

2010 Urtarrilak 6 (C urtea)

Patxi Otamendi

Isaias 60, 1-6

Efesoarrei 3, 2-3a. 5-6

Mt 2, 1-12

- Magoak deitzen ditugunak beste erreinu bateko ordezkariak ziren. Jende ikasia eta nolabait ere diplomazialariak. Nondik etorriak? Garai haietan baziren horrelakoak Parthian, Armenian, eta Judeatik ekialderako lurraldeetan. Beste erreinu batetan agintari berria izendatua zenean hara joaten ziren mezulari edo bisitari gisa. Euren zeregina agintaria agurtu eta opariak eskaintzea zen. Berez, ziur aski ez ziren judutarrek.
- Mezulari jakintsu hauek agurtzen dutena ez da Israelen erromatarrek zuten buruzagia (Herodes), Jainkoak Israeli emandakoa baizik (Jesus). Eskaintzen dizkioten opariak errege bati emango lizkioketenak dira: urrea, intsentsua eta mirra.

Kontakizunean gatazka bat nabari da. Ordurako Herodesek agintean ia 37 urte zeramatzan eta bere ondorengoa prestatzen ari zen. Giro horretan mehatxu gisa hartzen du jakintsuek aurreratzea judutarrek itxaroten zuten Mesias jaioa zela. Gainera, jaiotako horri Magoek “opari ofizialak” eskaini dizkiote!

- Kontakizunean nabarmena da Magoek erabilitako tentuzko jakinduria, eta beste aldetik Herodesen bat-bateko harrotasun trinkoa. Batzuk portaera neurtua bazuten (dotoreziaz galdetuz), agintaria kontrol gutxiko erabaki oldartuak hartzeko jarreran tematua dago. Historikoki Herodesen agintea gogortzen joan zen eta jendeak benetako beldurra zion. Hemen ikusten denez haur babesgabe batek ere jeloskor jartzen zuen.

Judutarren kulturen bezala, jakintsuen jokabidea apala eta zentzuduna: jakintsuei bere ekintzetan soiltasun “txukunaz” aritzea dagokie. Gauza dira onartzeko Mesias ez dela Herodesen jauregian edo gortean jaio, ingurune xume batean baizik.

- Magoek Jesusi opariak eskaintzean ez dute ordainean ezer jasoko. Beraien eginkizuna agintari berriarekin harremanak lantzea, botere berriaren abegia lortzea eta elkarren interesak hitzartzea bazen, oraino ez dute horrelako etekinik lortu. Hala ere, “pozik” itzultzen dira euren lurraldera. Zerk ematen die poza? Bestelako Jakintsu bat aurkitu dutela jakintsu hauek.

Herodes zelatan zegoela jakinik, zuhurtzi handiz bide anonimo batetik aldendu ziren. Zergatik aztoratu zen agintaria? Agian, sakonean bere sistema etikoa zalantzan gera zitekeela ohartu zelako. Edota lidergo desberdin bat sortzeaz zegoela. Boterean baino beste kemen batean oinarritutako lidergoa. Ez baita berdina agintaria edo liderra. Horregatik Jesus agintari baino “artzain ona” bezala izango da aurkeztua ebanjelioetan zehar. Artzainari babesle eta zaindari izatea dagokio. Artaldearen laguntzailea. Horrelakoak izaten saiatu ziren Israelgo lehen erregeak.

Kontakizun honetan ebanjelariak hurrengo kapituluetan zehazki agertuko duena aurreratzen du: Jesus batzuentzat miresgarri dela, eta beste zenbaitentzat arbuigarri.

Gaur ere hainbat jende arrotz aurkitzen du inguruan dirauen duen kristautasuna. Berehala esango dute beraiek kristautasuna gainditu edo atzean utzi dutela. Ez dietela jada erakartzen eta ezin dutela kristau sinestun izaten jarraitu. Hobe ez badute aurkako jarrerarik finkatzen. Herodesi horrek

itsutzen zion: besteak arerio edo mehatxu bezala sentitzea. Nork daki egun batean ez-kristau direla dioten batzuk ez ote duten kristautasunaren misterio xamurra aurkituko! Sinesmena aldaketa ausarta baten ondorioa baita.